



2021/2022 denboraldia

24. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN GORENGOEN MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Gorengo Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

1. MULTZOA	2. MULTZOA	3. MULTZOA
1 DUNBOA EGUZKI C.D.	1 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE	1 ELGOIBAR C.D.
2 HONDARRIBIA F.E	2 HERNANI C.D.	2 LEINTZ ALOÑA KE
3 OIARTZUN K.E.	3 USURBIL F.T.	3 MUTRIKU F.T.
4 ORERETA KAFAA, F.C.	4 ORIOKO F.T.	4 ZESTOA K.B.
5 ALLERRU K.E.	5 INTXAURDI K.E. "B"	5 GOIERRI GORRI F.K.
6 INTXAURDI K.E. "A"	6 IRAULI BOSTEKO K.K.	6 REAL SOCIEDAD S.A.D.
7 SANTO TOMAS LIZEOA K.E.	7 ANTIGUA LUBERRI K.E.	7 EUSKALDUNA S.D.
8 MARTUTENE K.E.	8 ANTIGUOKO K.E.	8 INTXURRE K.K.E.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Gorengo Mailako liga txapelketa **24 taldek** osatzen dute 8 taldeko hiru multzotan banatuta. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A.Igoera Fasea:

Multzo bakoitzeko lehen hirurak (3x3 = 9) eta laugarren onena (guztira 10 talde), puntuen eta partiden arteko zatiduraren bidez aterata, multzo bakarrean eta itzuli bikoitzera jokatuko dute (18 jardunaldi).

Emakumezkoen Erregionalen Ohorezko Mailara igoko dira arauz horretarako aukera duten bi talde onenak.



B.Gipuzkoako Kopa:

Gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4.ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5.XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailaren helburua 16 taldeko multzoa osatzea da. Beraz, zirkularrean aurreikusitako igoerekin eta jaitsierekin eta Emakumeen Euskal Ligako jaitsierekin multzo bakoitia geratuko balitz, igoeren eta jaitsieren zerrendarako lurralde-kategoria guztietan ezarritako irizpide komuna aplikatuko litzateke; hau da:

- Gorengo Mailako talde bat igota.
- Ohorezko Erregional Mailatik jaitsiera saihestuta.
- Eta horrela behin eta berriro

6. LIZENTZIAK

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FC" lizentzietan dagozkienak; azken kasu horretan, 15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda dauden "FJ" eta "FC" **lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.**

7.DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.




8.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General